

A branch of an oak tree with several leaves in various stages of autumn color change, ranging from green to yellow and red. The leaves are clustered together, and the branch extends from the bottom right towards the top left.

Bizkaia
hobe baterantz

The logo for Bizkaia, featuring a stylized red oak leaf icon to the left of the word "Bizkaia" in a bold, black, sans-serif font.

Bizkaia
goazen2030



aurkibidea

Bizkaia hobe baterantz	3
Lurraldearen abiapuntuko diagnostikoa: nolako Bizkaia daukagun 2016an	4
Etorkizunari begira: nolako Bizkaia nahi dugun 2030erako	6
Bizkaia 2030: ardatz estrategikoak	8
1go ardatzeko jarduketak: Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia	12
2. ardatzeko jarduketak: Gizarte zein lurralde kohesioa eta aukera berdintasuna dituen Bizkaia	17
3. ardatzeko jarduketak: Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua	25
4. ardatzeko jarduketak: Bizkaia munduari lotuta	30
Jarraipena eta ebaluazioa	34

Bizkaia hobe baterantz

Dokumentu honetan jaso dira Bizkaiko Foru Aldundiaren hurrengo 4 urteetarako proiektu eta jarduketa estrategikoak. Gure proposamenak gainditu egiten du agintaldiaren epemuga; izan ere, hautetsontziek eman diguten lau urteko agintalditik harantzago so jarri gara. Uste dugu begiak altxatu eta urrunera begira lan egin behar dugula nahi dugun lurraldearen alde.

Baina urrunera begira lan egitea ez da zurrin lan egitea. Dokumentu honetan urtebeterako proiektuak, bi urterako proiektuak eta are hiru urterakoak aurkituko dituzu. Gainera, aurrekontu-hornidura handiko proiektuekin batera, askoz aurrekontu apalagoa duten beste batzuk aurkituko dituzu. Nahita jokatu da horrela, proiektuen eta ekimenen garrantzia ez duelako haien kostuak erabakitzen, haien balioak baino, eta balio hori ekonomikoa baino zerbait gehiago delako; apur bat asko dela esan ohi da eta geuk ere horrela uste dugu.

Holako ekimenak abian jartzen direnean plangintza zehatza egin edota ardatz eta helburuen inguruko malgutasuna izatearen artean aukeratu behar izaten da. Urte anitzeko plangintzara jotzea konpromisoaren eta aurreikuspenaren erakusgarri da, baina denboraren buruan agian ondo geratuko ez zaigun jantzi bat egitea ere esan nahi du. Horretaz jakitun, etenik gabeko jarraipen eta ebaluazio sistema bat jarriko dugu abian, irekia eta parte hartzekoa. Gizarte eragileek, eragile ekonomikoek eta herritarrek eginkizun aktiboa izango dute sistema horretan. Horrek lagundu egingo digu bera egokitzen, inguruabar aldakorretara moldatzen. Etorkizunari so segituko dugu, baina aldiari-aldiari geldiunea egingo dugu gogoeta egiteko eta hautatutako bideak begiz jotako helmugara ote garamatzan ebaluatzeko.

Proposamen honen irekitasunak eta malgutasunak, bestalde, aukera emango digute proiektu berriak eransteko eta hemen aurkituko dituzunak aldatzeko, behar izanez gero. Baina dokumentu honetan aurkituko dituzun 120 jarduketen eta proiektuen aldeko gure konpromisoa eta asmo sendoa agertu nahi dugu.

Lurraldearen abiapuntuko diagnostikoa: nolako Bizkaia daukagun 2016an

Estrategia bat egiteko, lehenengo eta behin, lurraldearen abiapuntuko egoerari buruzko azterketa zorrotz eta objektiboa egin behar da.

Langabeziaren gehikuntza ekarri duen krisi ekonomiko larri batetik irteten hasi gara

Gogor jo gaituen krisiaren irteera oraintxe hasi gara begiztatzen, oraindik ere kili-kolo eta hainbat arrisku geoekonomikoren pean. Krisi ekonomiko eta finantzario horren ondorioz Bizkaiko per capita BPGd-ak 5 puntuko beherakada izan zuen 2008tik hasi eta 2013ra bitartean, baina hazkunderaren bidera itzuli da 2014an eta 2015ean.

Enpresen ikuspegitik, krisiak bereziki eragin die eraikuntzari –sektore horretan 3 enpresatik bat desagertu da– eta higiezinaren arloko jardueri, baina baita industria sektoreari ere; izan ere industria sektorean 6 enpresatik bat galdu dugu.

Krisiaren ondorioz gora egin du langabeziak, oro har, eta gazteen kolektiboak gehiago jasan

du ondorio hori; bestalde, luzaroko langabeen kopurua hazi egin da. Arau orokor gisa, lotura estua dago hezkuntza mailaren eta langabezia tasaren artean. Hain zuzen ere langabezia tasak handiagoak dira kualifikazio apalagoko kolektiboetan.

Oinarri izango ditugun indar garrantzitsuak

Hala ere, arazo horiek guztiak gorabehera, baditugu indar garrantzitsuak ere, krisiaren ondorio sozialak neurri handian leuntzeko giltzarri izan direnak eta aurrean dugun etapa berri honetan ere erabakigarriak izan behar dutenak.

Behar bada, gizarte babeserako berebiziko sistema edukitzea izango da indar horien artean garrantzitsuena. Erreferentziako lurraldea gara gizarte zerbitzuen arloan. Adineko pertsonentzat, mendekotasuna dutenentzat, desgaitasunen bat dutenentzat, gizartetik baztertuentzat, babesik gabeko adingabeentzat eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat eskaintza nabarmena daukagu, laguntzen eta zerbitzuen kopuruari eta kalitateari erreparatuta. Gainera, baditugu laguntza

emateko eta gizarteratzeko funtsezko tresnak, esate baterako diru-sarrerak bermatzeko errenta.

Ikuspuntu ekonomikotik, erreferente diren hainbat enpresak gure lurraldean dute egoitza (horietariko batzuk mundu mailan dira erreferente). Enplegua sortzeaz gainera, enpresa horiek zergen bidezko diru-sarreen izugarrizko iturriak dira Bizkaiaarentzat zein Euskadi osoarentzat, eta gure gizarte zerbitzuen sistemari eutsi ahal izateko gakoak dira.

Bizkaia erreferentziagune garrantzitsua da automozioa, aeronautika edo energia bezalako sektoreetan, bai eta, gero eta nabarmenago, gorantza datozen sektore berrietan ere, hala nola biozientzien eta osasunaren arloan, IKTetan edo sormenaren eta kulturaren industrietan.

Horretaz gainera baditugu zientzia eta teknologia sistema bikaina, unibertsitateak, erreferentziako ikerketa zentroak eta teknologia zentroak. Horiek guztiak funtsezkoak dira Bizkaian enpresak garatzeko.

Bizkaiko ekonomia gero eta irekiagoa eta nazioartekotuagoa dugu. Krisia gorabehera, gure sare ekonomikoak hobetu egin du nazioarteko ingurunean daukan lekua. Gure

esportazioak nabarmen hazi dira azken urte hauetan eta honezkero Bizkaiko 1.200 enpresak erregulartasunez esportatzen dute.

Turismorako erakargarritasun handia dugu. Urtean 1.200.000 bisitari inguru jasotzen ditugu, eta 10etik 4 nazioarteko turistak dira. 2015an bisita markak apurtu ditugu, eta turismoak dagoeneko gure BPGd-aren %5 sortzen du. Aktibo handia dugu Bilbo, bere eraldaketa, modernizazioa eta kultura-eskaintza direla eta nazioartean irudi ezin hobea duen hiria. Gainera, turismorako beste baliabide garrantzitsu asko ditugu han eta hemen Bizkaiko eskualde guztietan.

Kanpoko nahiz barruko lotura izugarri onak ditugu garraiorako; tartean, garraio publikoaren sistema osoa eta eraginkorra. Gure aireportuak hogeita hamar bat lotura zuzen eskaintzen ditu eta urtean 4 milioi bisitari jasotzen ditu. Gure garraio publikoko sistemak erabiltzaileen balorazio eta gogobetetze indize bikainak lortzen ditu. Metroak, Bizkaibusek, trenak, tranbiak eta hainbeste itxaroten dugun abiadura handiko trenak egituratzen dute gure lurraldea. Eta ezin dugu ahaztu Bilboko Portuak gure ekonomiatik tira egiteko daukan indarra.

Ingurumen arloan erreferente gara; izan ere biztanleen %100ek dute eskura hondakinen gaikako bilketa eta %96k dituzte eskura uraren saneamendu eta arazte sistemak. Gure birziklapen mailak Estatuko onenak dira, eta sortzen ditugun hondakinen %90 baliatzen ditugu.

Horri guztiari esker giza garapenaren munduko indizerik onenetarikoa dugu, Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) erabiltzen duen adierazlearen arabera (0,97 puntu, markarik altuena 1 izanik). Bizi itxaropena, hezkuntza maila edo errenta eskuragarria bezalako alderdiak neurtzen ditu adierazle horrek.

Aurrean ditugun erronkak

Epe laburrean, zalantzarik gabe, langabezia da erronka nagusia, gizartean duen eraginagatik. Langabe eta enplegu-eskatzaile modura Lanbiden izena emanda dauden 84.000 bizkaitarrek konponbideak behar dituzte, eta ekintza konbinatu batek ekarri behar ditu konponbide horiek: alde batetik, enplegu aukera berriak eskainiko dituen jarduera ekonomikoa sortu behar da, eta, bestetik, laguntza eman behar da pertsona horien lanbide-gaitasunen profila egokitzeko, Ezagutzaren Gizartearen barruan enpresek agertzen dituzten eskakizunen arabera.

Erronka horri arrakastaz aurre egin ahal izateko, lanean jarraitu behar dugu gure enpresen lehiakortasuna hobetzen. Erreferente diren enpresa batzuk baditugu ere, gure enpresa-ehuna, oro har, neurri txikikoa da, eta bertan pisu handia dute ETE-ek. Zalantzarik gabe, enpresen arteko batasunerako eta lankidetzarako formuletan sakondu beharra dago. Enpresek harreman gehiago izan behar dituzte gure ezagutza-sistemeekin, eta I+G+Brako joera handiagoa hartu behar dute.

Eta, jakina, aurrera jarraitu behar dute nazioartekotzeko bidean; gure gizarte osoa prestatu behar dugu erronka horretarako.

Ezin dugu ahaztu, baina, epe luzera begira, gainditu beharko ditugun erronka nagusiak zahartzearena eta ingurumen-jasangarritasunarena izango direla.

Poztu egin behar gara bizi itxaropen luzeagoa eta kalitate hobeko zahartzea lortu ditugulako, baina, aldi berean, ezin dugu ahaztu hobekuntza horrek, jaiotza tasa ikaragarri txikiarekin batera, gure gizarte ereduaren desoreka garrantzitsua eragin dezakeela hainbat ikuspuntutatik, besteak beste gure zerbitzu publikoen jasangarritasun ekonomikoaren aldetik eta pentsioen etorkizunaren aldetik.

Ingurumen kontuetan, arestian esan dugunez, gure jasangarritasun-adierazleak onak dira benetan. Dena dela, ingurumenaren erronka hori erronka globala da. Gure lurraldean eragin nabarmena izan lezake beste herrialde eta eskualde batzuetan gertatzen denak; batez ere, garapen bidean dauden herrialdeetan gertatzen denak.

Etorkizunari begira: nolako Bizkaia nahi dugun 2030erako

Proiektu estrategikoei buruzko agiri hau 4 ardatz nagusiren inguruan egituratu dugu. Ardatz bakoitzean saiatu gara erantzun egokia ematen lurralde gisa hurrengo urteetan topatuko ditugun erronka nagusiei. Ardatz horiek lurraldearen egoeraren azterketatik sortu dira, eta gizartearen, ekonomiaren nahiz kudeaketa-ereduaren aldetik gure lurraldearen eta gure ingurunearen bilakaera markatuko duten joera handiekin lerrokatu behar dira. Epe ertaineko lana da, legegintzaldi honetan hasi dena baina 2030. urtean amaitu beharko litzatekeena Bizkaia lehiakorragoa, inklusiboagoa, modernoagoa eta irekiagoa lortuta.

1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia

Enplegua eta jarduera ekonomikoa sortu beharra erronka nagusietarikoa da. Horretarako beharrezkotzat jotzen dugu lurraldeko enpresa-ehunarekin itun estrategikoa bilbatzea, berrikuntza oinarri harturik, aldaketaren eta hobekuntzaren eragile gisa, eta bereziki zainduz gorantz

egiten ari diren sektoreak, aldaketak ez ezik aukerak ere ekarri dituen ingurune ekonomiko honetan.

Ekintzailatzaren kultura sustatzen duen lurraldea izan behar da Bizkaia etorkizunean, proiektuak martxan jartzen lagunduko diona talentuari eta pertsona ekintzaileen ekimenari. Horretarako, gure lurraldeak balio erantsia duten zerbitzuak eta babesa eskaini behar dizkie pertsona horiei.

Gainera, gure lurraldea atzerriko inbertsioaren erakargune izan behar da, horrek bide emango baitigu eredu ekonomiko ahaltsua finkatzeko, prestakuntza duten gazteentzat kalitatezko enplegua eta aukerak sortuko dituen, talentua erakarriko duena eta gure lurraldeak sortzen duen talentuari hemen eutsiko diona.

Kalitatezko enplegua, hain zuzen, gure helmugako eredu ekonomikoaren beste xede handi bat da. Kalitatezko enplegua, eta pertsona guztiei, bereziki gazteei eta luzaroko langabeei, aukerak eskainiko dizkien sektore ekonomiko bat.

2. Gizarte zein lurralde kohesioa eta aukera berdintasuna dituen Bizkaia

Bizkaiak ezin du aurrera egin lurraldean bizi diren pertsona guztiek ezin badute aurrera egin. Sendotu egin behar ditugu gure ongizate-estatuaren eredua, gure zerbitzuak eta gure gizarte babeseko sistema. Erreferente gara ez Estatuan bakarrik, baita Europan ere, baina horrek ez digu ezkutatu behar oraindik ere badugula lana aurrean.

Gizarte zerbitzu eta laguntzen sare jasangarria indartu behar dugu, sistemaren jasangarritasuna sistemaren iraupenaren bermea delako. Horretarako bermatu egin behar dugu konponbide azkarrak eta kalitate onekoak ematea, batez ere adinekoei, biztanleriaren zahartzea errealitate bat delako eta zahartze aktiboko politikak ez ezik gizarte babeserako sistema egokia ere erabili behar dugulako errealitate horretara egokitzeko.

Aukera berdintasunak zor izaten jarraitzen du gure lurraldearentzat. Azken urteotan aurrerapen handiak lortu dira, baina oraindik bidea egin behar dugu pertsona guztientzako aukera berdintasuna bermatu arte, Bizkaia

solidario eta inklusiboa nahi dugulako. Berdintasunik gabe ez dago gizarte kohesiorik, eta gizarte kohesiorik gabe ezin izango dugu berdintasunik eduki.

Komunikazioak ere erronka dira: lurraldearen konektibitatearen hobekuntza egiteko dago oraindik, eta horregatik plan honetan zenbait ekimen jaso ditugu, ildo horretan modu argian aurrera egitea helburu dutenak. Konektibitatea hobetu lurraldearen barruan, baina baita Euskal Herriko, Estatuko eta Europako beste leku batzuetarantz ere.

Gure kultura eta gure hizkuntza ezinbesteko elementuak dira lurraldearen kohesioa eta garapen soziala nahiz ekonomikoa indartzeko. Haien balioa agerian jartzea eta bai kultura bai gure hizkuntzaren erabilera sustatzeko politikak babestea ere funtsezko zereginak dira 2030. urterako gure amets setako Bizkaia hori lortze aldera.

3. Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua

Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren beharrazaneiei eta aldaketei egokitzen jarraitu behar du. Erakunde moderno bat erakunde hurbila da, abegitsua, herritarrei begira dagoena, herritarrak gogoan dituela pentsatzen eta jarduten duena. Horretarako, lanean jarraitu behar dugu lankidetzarako eta parte hartze sozialerako guneetan, eta horietan gai izan behar gara kontuak emateko, modu sistematiko, garden eta eraginkorrean, ez dugulako nahi hauteskunde-hitzordu

bakoitzarekin batera heltzea egiten dugunaren ebaluazioa; epe luzeegia litzateke geure burua azterketa publikoaren pean jarri gabe jarduteko. Horregatik, abian jarri nahi dugu lurraldea aztertzeke, ebaluatzeke eta kontuak emateko sistema bat non herritarrek eginkizun aktiboa izango duten. Uste dugu horrek hobeto kudeatzen lagunduko digula. Akatsen bat egiten dugunean aitortu egingo dugu, eta lurraldearen beharrazaneiei eta erronkei aurre egiteko zer tresna ditugun azalduko dugu. Guztiekin batera baino ezin dugu aurrera egin Bizkaia hobe baterantz, lurraldeko enpresekin, gizarte eragileekin, erakundeekin eta, batez ere, herritarrekin batera. Hori dela eta, agintaldi honetan ahalegin berezia egingo dugu lanerako tresna horiek indartzen.

Erakunde modernoa izateko ez da nahikoa erakunde irekia eta ulerbera izatea. Gainera gai izan behar gara gure kudeaketa-eredua modernizatzeko. Baliabideak erabiltzeko orduan eraginkorrago jardun behar dugu, izapideak kudeatzeko orduan hurbilago, eta informazioa emateko orduan bizkorrago.

4. Bizkaia munduari lotuta

Gure mundu honetan inoiz baino elkarren mendetasun handiagoa dugu. Munduko beste muturrean gertatutako edozein aldaketak inoiz ez digu gaur bezainbeste eragin. Bizkaia prest egon du hortik ahalik eta onurarik handiena ateratzeko, ez lurraldearentzako aukera ekonomikoen bitartez bakarrik, baita gure hizkuntza eta gure kultura zabaldu eta euren balioa agerian jarri ahal izateko jokaleku

gisa ere.

Gure enpresen nazioarteratzea sendotu behar dugu, haien tamaina gorabehera; gure lurraldera turismoa erakarri; gure gazteei lagundu, mundura irten daitezen prestakuntzarako eta enplegurako aukeren bila; eta gure lurraldea nazioarteko agendan sar dadin lortu behar dugu, nazioartean garrantzia duten sare eta foroetan modu aktiboan eta sistematikoan parte hartuz. Partida honetako jokalaria bagara zelaira irten nahi dugu, harmailetan egon beharrean, inork gure orde egingo duenaren emaitzen eta ondorioen zain.





Bizkaia 2030: ardatz estrategikoak





4 helburu estrategiko

Kalitatezko enplegua
Ekintzaileak bultzatzea
Gure enpresa sarea laguntzea
Enpresen eta atzerriko inbertsioaren erakarpena

26 aurreikusitako jarduketa

159.537.000
euroko inbertsioa



7 helburu estrategiko

Gure loturak erraztu
Garapen jasagarria eta gizarte mailan orekatua
Zerbitzu eta laguntza sare jasagarria
Aukeren berdintasunean
Gazteria
Euskara
Kultura

53 aurreikusitako jarduketa

440.173.000
euroko inbertsioa



2 helburu estrategiko

Foru administrazioa modernizatzea
Aldundi hurbilagoa, herritar udal eta eskualdeekiko

24 aurreikusitako jarduketa

26.228.000
euroko inbertsioa



4 helburu estrategiko

Nazioartekotzekoa
Gazteentzako aukerak nazioartean
Naziorte mailako foro nabarmenetan kokatzea
Nazioarteko turismo jomuga

17 aurreikusitako jarduketa

26.230.000
euroko inbertsioa

1

Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia

2

Gizarte zein lurralde kohesioa eta aukera berdintasuna dituen Bizkaia

3

Bizkaia modernoa, hurbila eta arduratsua

4

Bizkaia munduari lotuta

1

Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia



Bizkaitarrek **kalitatezko enplegua** izateko aukerak sortu, bereziki epe luzeko langabetuen eta gazteen artean. Epe luzerako enpleguaren bermea izango den trebakuntza eta talentuaren garapena indartu.



Ikuspegi orotariko **ekintzaileak bultzatzea**, Bizkaian kultura ekintzailea indartuz eta ekimen ekintzaileei balio erantsiko zerbitzu eta laguntzak eskainiz.



Gure enpresa sarea lagundu Aldudiaren eta Bizkaiko enpresen arteko aliantza estrategiko batean oinarrituz. Berrikuntzan, nazioartekotzean eta lankidetzan oinarritutako sektore tradizionalak sendotu eta goraka ari diren sektore berriak garatu.



Enpresen erakarpena eta atzerriko inbertsio produktiboa indartu. Lurralde ireki eta abegitsu batek izan behar dituen baldintzak sortu, akuilu eta pizgarritz ondo hornituz, inbertsio hauek Bizkaia erakartzeko lan bizi eta proaktiboa egiten den heinean.

2

Gizarte zein lurralde kohesioa eta aukera berdintasuna dituen Bizkaia



Bizkaiko komunikazio sareen hobekuntza, garraibide ezberdinen bitartez **gure loturak erraztuz**, bai barne mailan eta baita Europako hiri garrantzitsuenekin eta lurraldeekin ere.



Bizkaiko eskualdeen **garapen jasangarria eta gizarte mailan orekatuaren** alde egitea, eskualde guztientzako aukerak sortzen lagunduz.



Inor atzean utziko ez duen gizarte **zerbitzu eta laguntza sare jasangarria** sendotu eta bultzatu. Arreta gehien behar duten kolektiboen beharrei kalitatezko konponbide azkarrak eskaini, batez ere, nagusiei, haurrei, pertsona desgaituei eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeei.



Aukeren berdintasunean eta Bizkaia inklusibo eta solidario baten eraikuntzan aurre egin.



Bizkaiko **gazteriar**i zuzendutako konfidantzazko esparru berriak sortu, gure lurraldearen etorkizunaren eraikuntzan parte-hartzaile izan daitezen.



Euskararen erabilera bultzatu hezkuntza esparrutik haratago. Ume eta gazteei zuzendutako euskaraz egindako aisialdia eta gizarte heziketan oinarritutako ekimenen eskaintzaren sorrera azpimarratu.



Bizkaiko **garapen ekonomiko eta gizarte garapenean giltzarri den kulturaren** aldeko apostu sendoa. Kultura denontzat eskuragarri egin, gure kultura baliabideei balioa eman eta sorkuntza adierazpen ezberdinak lagundu.

3

Bizkaia
moderno,
hurbila eta
arduratsua



Foru administrazioa modernizatu eta udalei zuzendutako zerbitzuak optimizatu.



Aldundi hurbilago bat lortu, bai herritarrekiko eta baita Bizkaiko udalekiko ere. Bizkaiko eskualdeetara fisikoki hurbilduz eta komunikazio eta partaidetzarako ildo berriak sortuz, lurraldearen eta herritarren beharrei eta erronkei hobeto erantzuteko.

4

Bizkaia
munduari
lotuta



Bizkaiko enpresa sareek eta erakundeek **nazioartekotzeko** egin duten apostua babestu, etorkizunera begira ahalmen handiagoa duten merkatuetan kokatzen lagunduz.



Gure **gazteei naziorteko harreman, esperientzia eta ezagutzetara sarbidea erraztu**, ekonomia eta gizarte globalizatuaren erronkei aurre egiteko aukera izan dezaten.



Bizkaiko enpresei eta herritarrei mundura konektatzeko aukera emateko, lurraldea **naziorte mailako foro nabarmenetan kokatu**, bai eta erreferentzia diren herrialde eta lurraldeen jarduera onenen ezagutza erraztu ere.



Nazioarteko turismo jomuga moduan Bizkaia duen ahalmen osoa garatu, sektorea osatzen duten enpresa eta eragileei lagunduz eta naziorte mailako ekimenak erakarriz.





1

**Jarduera
ekonomikoa
eta enplegua
dituen
Bizkaia**

1

Jarduera ekonomikoa eta enplegua dituen Bizkaia

Ekintza	Helburua	Data	Inbertsioa	Saila	Biztanleak
1. Bizkaiko Foru Aldundirako lan eskaintza publikoa	Plantilla egonkortzea eta enplegu publiko iraunkorra eta kalitatezkoa bermatzea 112 lanpostuetarako	2016-2017	211.300 €	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lurraldea
2. Enplegu anezkak sortzea Bizkaiko eskualdeetan	Eskualdeetan 20 anezka martxan jartzea	2015-2019	800.000 €	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna	84.000 pertsona langabetuak
3. Baztertze arriskuan dauden langabeentzako laneratzeko plana	Langabeen dauden pertsonak lan merkatura itzuli daitezen sustatzea	2016-2017	4.285.700 €	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna	46.561 pertsona
4. Gazteen enplegarritasuna sustatzeko plana	Gazteak laneratu daitezen erraztea	2016-2017	2.857.140 €	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna	12.250 pertsona
5. Ekintzaileentzako mentoring / coaching programa	Bizkaiko ekintzaileei laguntzea, ezagutza gehiago eta hobeak eduki ditzaten nor bere enpresa sortzeko	2016-2019	Baliabide propioak	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Ekintzaileak
6. Emakumeak buru dituen ekintzailetza bultzatzeko plana	Emakumeak lan merkatuan sar daitezen erraztea	2016-2019	552.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Emakume ekintzaileak
7. Ekintzailetzaren kultura sustatzeko Egin eta Ekin programa eta Zitek programa indartzea	Ekintzailetzaren kultura sustatzea	2016-2019	762.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	152.124 gazte
8. Enpresa berritzaileak sortzeko eta enpresa-haztegiak kudeatzeko laguntza programak	Ekintzailetzari bultzada ematea, 2016-2019 bitartean 600dik gora enpresa-proiektu eta start-up babestuz	2016-2019	23.529.420 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Ekintzaileak

 Ekintza	 Helburua	 Data	 Inbertsioa	 Saila	 Biztanleak
9. Ekintzaileentzako hazi kapitaleko funtsak eta mikroredituak sendotzea	Ekintzailetzari bultzada ematea	2016	3.575.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Ekintzaileak
10. 3i programa abiaraztea	Tira egiten duten enpresa proiektuei bultzada ematea, inbertsioa, berrikuntza eta nazioartekotzea babestuz	2016-2019	10.250.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Lurraldea
11. Elkarlanean programa abiaraztea	Enpresen arteko lankidetzak sustatzea, enpresa txikiak handitu egin daitezen, euren lehiakortasuna hobetzeko, eta itunak, partzuergoak eta elkarlaneko proiektuak sustatzea, hazkunderako estrategia moduan	2016-2019	6.980.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	80.217 ETE eta mikro ETE-ak
12. Energy Intelligence Center delakoa sortzea, energia sektorea eta beraren balio katea Bizkaian finkatu daitezen errazteko	22.000 pertsonari lana ematen dien eta Bizkaiko BPGd-aren %7,5 sortzen duen sektorearen etorkizuna mesedetzea	2016-2019	15.300.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Lurraldea
13. AIC zentroa eta beraren III. fasea sendotzea, automozio sektorea eta beraren balio katea Bizkaian finkatu daitezen	35.000 pertsonari lana ematen dien eta Bizkaiko BPGd-aren %18 sortzen duen sektorearen etorkizuna mesedetzea	2016-2018	11.500.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Lurraldea
14. Fabrikazio Aurreratuko Zentroa abian jartzea eta sendotzea, aeronautika sektorea eta beraren balio katea Bizkaian finkatzeko	4.100 pertsonari lan eman eta Euskadiko BPG-aren %1,2 den sektorearen etorkizuna indartu	2016	Baliabide propioak	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Lurraldea
15. Nagusi Intelligence Center delakoa diseinatzea	Aukera eta erreferentzia gune bat diseinatzea “zilarrezko ekonomiaren” inguruan	2017-2019	1.500.000 €	Gizarte Ekintza	Lurraldea
16. IKTen arloko Bizkaiko aukera-hobie buruzko lantaldea sortzea	Bai oraina bai geroa ederrak dituen sektore batean lurraldeko enpresak leku onean kokatzea	2016	Baliabide propioak	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Lurraldea

 Ekintza	 Helburua	 Data	 Inbertsioa	 Saila	 Biztanleak
17. ETE-etan inbertitzeko eta pertsona autonomoek inbertitzeko laguntza programak	Inbertsio produktiboari bultzada ematea, 2016-2019 bitartean 1.500 inbertsio-proiektu babestuz	2016-2019	11.686.600 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	ETE eta Autonomoen kolektiboa
18. Toki merkataritza garatzeko programa	Tokiko merkatariei laguntzea	2016-2019	3.000.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Lurraldea
19. “Doing Business In Biscay” programa abiaraztea	Bizkaian atzerriko inbertsioa sustatzea	2016-2019	1.950.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena / Ahalduen Nagusiaren Kabinetea / Ogasuna eta Finantzak	Lurraldea
20. Lurraldera inbertsioa erakarri	Ekonomi aktibitatea eragiten duten proiektuetarako finantzaketa iturri pribatuak bilatu	2016-2019	1.300.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena / Ahalduen Nagusiaren Kabinetea / Ogasuna eta Finantzak	Lurraldea
21. Bizkaiko Foru Aldundiak eta lurraldeko udalerriek bultzatutako programen finantzaketan lagungarri izan litezkeen Europako fondoak lortu.	Europar batasunaren esparruan finantzaketa publikorako aukerak baliatu, batez be ekonomi jardura eta lan postuen sorrera helburu duten programetan	2016-2019	280.000 €	Ahalduen Nagusiaren Kabinetea	Lurraldea
22. Enpresa multinazionalen I+G unitateak Bizkaira erakartzea	Bizkaiko enpresa sektorea eta jarduerarako nahiz enplegurako aukerak indartzea	2016-2019	1.000.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena / Ahalduen Nagusiaren Kabinetea / Ogasuna eta Finantzak	Lurraldea
23. Crowdfunding plataforma publikoa sortzea	Finantzaketa iturri berriak bilatzen laguntzea	2016-2019	240.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Lurraldea

 Ekintza	 Helburua	 Data	 Inbertsioa	 Saila	 Biztanleak
24. ETE-en berrikuntzarako laguntza programak	Berrikuntza sustatzea, 2016-2019 bitartean 1.200 berrikuntza-proiektutarako laguntza emanez	2016-2019	27.602.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	80.217 ETE eta mikro ETE-ak
25. ETEak nazioartekotzeko laguntza programak	Produkzio-ehuna nazioartera bultzatzea, 2016-2019 bitartean 800 nazioarteratze-proiektu babestuz	2016-2019	18.690.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	80.217 ETE eta mikro ETE-ak
26. ETE-etan inbertitzeko eta pertsona autonomoek inbertitzeko laguntza programak	Inbertsio produktiboari bultzada ematea, 2016-2019 bitartean 1.500 inbertsio-proiektu babestuz	2016-2019	11.686.600 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	80.217 ETE eta mikro ETE-ak



**Gizarte zein
lurralde
kohesioa eta
aukera
berdintasuna
dituen Bizkaia**





Gizarte zein lurralde kohesioa eta aukera berdintasuna dituen Bizkaia

 Ekintza	 Helburua	 Data	 Inbertsioa	 Saila	 Biztanleak
1. Ahalmen handiko ordainpeko autobide sareko tasen eredu integral baterantz egin	Azpiegitura horien ohiko erabiltzaileei tarifak merkatzea	2016-2019	Baliabide propioak	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Lurraldea
2. Gerediaga-Elorrio ardatza amaitzea	Eskualdeko biztanleen bide segurtasuna hobetzea	2016	212.565.250 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Eskualdean bizi diren 75.859 pertsona
3. Ermuko saihesbidea amaitzea (Beko Errekako eta Uretamendiko tartekak)	Eskualdeko biztanleen bide segurtasuna eta loturak hobetzea	2015-2017	68.924.630 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Eskualdean bizi diren 75.859 pertsona
4. Zornotza-Muxika lotura amaitzea (Urdinbideko tunelak)	Inguruko biztanleen bide-loturak hobetzea eta istripu ugariko gune beltz bat ezabatzea	2016-2018	21.897.168 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Eskualdean bizi diren 46.312 pertsona
5. N-637, N-633 eta BI-737 errepideen lotunea egokitzea Arrontegitik Mungiarantz (Derioko lotunea)	Errepidea eta segurtasuna hobetzea	2016-2017	6.962.996 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Eskualdean bizi diren 46.163 pertsona
6. Sarbide eta espaloietako obrak amaitzea BI-631 errepidean (Egirleta)	Segurtasuna hobetzea dentsitate handiko bide batean	2016	1.130.948 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Eskualdean bizi diren 398.863 pertsona
7. Gasolina-zerbitzuguneen eta Egirletako gainaren artean trazadura zuzentzeko proiektua	Segurtasuna hobetzea dentsitate handiko bide batean	2016-2017	1.291.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Eskualdean bizi diren 398.863 pertsona

 Ekintza	 Helburua	 Data	 Inbertsioa	 Saila	 Biztanleak
8. A-8an La Arenako zubia konpontzeko proiektua egitea eta obrak burutzea	Dentsitate handiko bide bat hobetzea	2016-2107	4.016.342 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Eskualdean bizi diren 265.855 pertsona
9. Hobekuntza obrak amaitzea BI-623an Durango parean	Bidea egokitzea	2016	2.071.886 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Eskualdean bizi diren 75.859 pertsona
10. Motozaleak babesteko sistemak	Bizkaiko motozaleen bide segurtasuna areagotzea	2016-2019	500.000 €	Ekonomi eta Lurralde Garapena	Lurraldea
